



BARREN

TOKIKOM



Azaletik BARREnera



JAI-ALAI TABERNA

Kalegoen Plaza, 5 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 021

Ondo pasa trinitateetan!

Iturri Taberna 943 257 448

Garagardo aukera zabala etorri probatzera.
Bokatak eta razioak.

Gabi jatetxea

Menu berezia
Pintxoak
Bokatak
Razioak

Kalebarren plaza, z/g
Tel. 943 741 230

Ondo pasa trinitateetan!

SALENTO
IL SAPORE ITALIANO

@ salento_elgoibar@hotmail.com

943 74 01 96

Pedro Migel Urruzuno Kalea, 10,
20870 Elgoibar, Gipuzkoa

**Trinitate
jai zoriontsuak!
Etor zaitez
gurekin ospatzera.**

Osagai naturalekin egindako jakiak:
PIZZAK, %100 osagai naturalekin

**ENTZALADAK
PASTA FRESKOA
OGITARTEKOAK**

ETXEAN EGINDAKO IZOZKIAK
Osagai natural eta
eguneko esnearekin eginak

Salenton zuk nahi duzuna
topatuko duzu,
mimo handiz zuretzat prestatua.

Zatoz! Ez zara damutuko!

**18 URTEZ
ZUEKIN**

Erabili gure etxeko zerbitzua
edozein jaki zelin postre eskatzeko,
ordutegi zabala.

- EL ETXETIK EGINDAKO ZERBITZUA
- OSAGAI NATURALAK
- DI-LINE ERRETZERAK
- IKOMITUA EGINDAKO MENUA
- ELTALDIZ BEREZTUTAKO ERRETZERAK

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ EKAINAREN 10EAN, GIZA KATEA

Lau urte pasa diratu Bergarako giza katetik. Ekimen hark Durango eta Iruña lotu zituen. 123 kilometroko ibilbidea izan zen, eta 150.000 pertsonak hartu genuen parte. Ez zen marka makala izan. Baina zenbakiak zenbaki, egun eder hartatik gaur arteko soka luzea eta oparoa izan da. Batez ere, lau urte hauetan zehar herritarrok elkarrengana hurbildu gara, aurreiritziak eta lotsak alde batera uztea lortu dugu, sentipenak eta arazoak partekatu ditugu, ezarritako erronka guztiak bete ditugu eta pozik gaudela adierazi behar dugu. Oraingoa, ekainaren 10ekoa, beste erronka bat izango da, aurrekoa baino luzeagoa eta jende gehiagoren parte-hartzea eskatzen duena. Zergatik joan ekainaren 10eko giza katera? Egun horretakoa festa izango da, eta aldarrikapena izango da. Euskal herritarrok gure etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitze ziklo berri bat ireki nahi dugulako, epe luzerako elkarbizitza eraikitze erabakiak hartu nahi ditugulako, etorkizun hobe batera jauzi egin nahi dugulako eta

abar luze bat. Baina, ziur aski, hemen zerrendatzen direnak baino askoz ere arrazoi gehiago izango dituzu gizakatean parte hartzeko. Beraz, elgoibartar hori, animatu zaitetz parte hartzera eta idatzi zure arazoia zapian! Trinitate jaietan eta datozen egunetan galdetu inguruan edota hurbildu plazan eta Kultur Etxean jarriko ditugun postuetara eta lortu zure metroa. Ekainaren 10ean Melitongo zubitik hasita Sigmarainoko tartean, jende olatuak zeharkatuko du Elgoibar. Artetxe, Maala, San Frantzisko, San Bartolome eta Santa Anako kaleetatik zehar pasako da giza katea, 1.000 lagun elkartzea nahi genuke horretarako. Lortuko ote dugu? Kopuru handia den arren, baiezkoan gaude, baina zure parte hartzea giltzarria izango da. Ikusiko duzu zein ederra izango den: eskutik helduko dio Aitorrek Maiteri, Maitek Doloresi, eta honek Ikerri, Ikerrek Iratiri, Iratik Jesus Mariri, Agurtzaneri, Henryri, Albertori, Joanari, Ruthi, Beatrizi, Antoniori, Jose Ramoni, Haizeari... eta berriz ere historikoa izango da. Ni banoa, eta zu bazatoz? Jende zorionsua herri libre batean.

Elgoibarko Gure Esku Dago

▶ GU ERE IZANGO GARA EKAINAREN 10EKO GIZA KATEAN

Mendaroko EAJk dei egiten dizue Gure Esku Dago herri mugimenduak ekainaren 10erako antolatu duen giza katean parte hartzera. Herri bat gara, eta gure etorkizuna libreki erabakitze eskubidea dagokigulako, gu han izango gara. Gogoratu Mendarok bere egin duela 500 pertsona biltzeko erronka. Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituen 201,9 kilometroko katean, 60. kilometroa osatuko dugu mendaroarrak. Gogoratu geuk nahi duguna izan nahi badugu, garrantzitsua dela parte hartzea. Eman izena, eta zatoz zu ere.

Mendaroko EAJ



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Lehenen Espangumak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpilaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Araniza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDALAK
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO
FORU AUZUMENDAK



Gipuzkoako Foru Auzumendak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Azaletik

Handia egitera goaz: Kalegoen plaza eta Maalako parkea

Gaur, 18:00etan, denok plazara!

Iritsi da egun handia. BARREnek 25 urte bete dituela ospatuko dugu gaur Elgoibarren, zuek denekin batera. 25 urte, mende laurden. Badira urte batzuk! Elgoibar eta Mendaroren barruak azaleratzea izan da gure zeregin nagusia urte hauetan guztietan, ezkutuan zegoena azaleratzea, eta horregatik, BARREn azal-orri guztiak aterako ditugu gaur Kalegoen plazara, eta, jakina, azalekin batera, beste horrenbeste protagonista ere bilduko ditugu. Kalegoen plaza jendez beteko dugu, baina ez da hori izango eguneko ekitaldi bakarra. Gavean, 21:00etan, Maalako parkea hartuko dugu. Urteurrenaren harira, kantu-dantza afaria antolatuko duelako Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak Elgoibarko Udalaren laguntzaz eta 150 bat lagun elkartuko gara afaritarako.

◆ **18:00.** Arratsaldeko seiretan hasiko gara Kalegoen plazan, azalak banatzen. 1.078 azal-orri izango dira guztira, eta gutxienez portada adina lagun batuko ditugu plazan, argazkia ateratzeko. Azalak plazan bertan banatuko dizkizuegu. Banaketa errazteko, zenbaki bana eman dizuegu, zuen azal-orriari dagokiona, eta mesedez, hartu gogoan zenbaki hori. Zure zenbakiaren berri emateko emaila edo whatsapp jaso ez baduzu, jarri gurekin harremanetan, 943 744 112 telefono zenbakira deituta.

Plazan itxitura handi bat sortuko dugu, eta eskuineko aldetik, frontoi aldetik, sartuko zarete protagonistak hara. Sarreran bertan banatuko dizkizuegu azal-orriak. Horretarako ilarak sortuko ditugu, eta dagokizuen ilarara joatea eskatuko dizuegu. Azalak jaso ahala, itxiturara sartuko zarete. Lurra markatuta egongo da, Otik 1.077ra arteko zenbakiekin, eta dagokizuen lekuan jarri beharko zarete argazkirako. Argazkia egin ostean, sartu zareten leku beretik irtengo zarete eta irteeran azal-orriak jasoko ditugu.

◆ **PROTAGONISTAK ETA EXTRAK.** 25 urte hauetan gure azal-orria izan zareten 700 bat lagunek baieztatu diguzue gaur plazan izango zaretela. Azal-orri libreak ere badauzkagu, baina, gaur etortzerik ez duten protagonistei dagozkienak, eginahalak egin arren lotu ezin izan ditugun beste hainbatena eta batez ere pertsonen beharrea gaiei eskainitako azalei dagozkienak. Azal-orri horiek parte hartzeko prest baldin bazaude, hurbildu frontoi aldera eta zoaz extrentzako ilarara. Iritsi ahala banatuko dizkizuegu libre dauzkagun azalak.

◆ **ARGAZKIA.** Taldeko argazkia eta banakako argazkiak egingo ditugu. Taldekakoa, goitikakoa, bi lekutatik aterako dugu. Plaza pareko



etxebizitza batetik eta San Bartolome parrokiako balkoitik. Argazkia ateratzeko, azal-orriak altxatzea eskatuko dizuegu. Hiru argazkilari izango ditugu goietan irudi hori ateratzeko, eta bi esatari ariko dira, argazkilariak emandako aginduak beteazten. Adi, beraz, esatariek esaten dutenari. Argazkia 19:00ak aldera aterako dugu, plaza bete jende dela. 18:00etatik 19:00etarako tartean, baina, BARREn Hitz eta klik ataleko kolaboratzaile grafikoak ere ariko dira, banakako argazkiak ateratzen. Material guzti horrekin bideo bat osatuko dugu gero.

◆ **EKITALDIA, SARE SOZIALETAN.** Gu geu ibiliko gara argazki-kamerak hartuta, baina zuen argazkiak ere ikusi nahiko genituzke. Horretarako, traola bat izendatu dugu: #barren25urte.

◆ **'BARREN'-EN AZALAK, HERRIKO ERAKUSLEIHOETAN.** Astelehenetik aurrera, astebetetz, herriko dendetako erakusleihoetan eta

BARRENera

beteko ditugu gaur, BARRENek 25 urte bete dituela elkarrekin ospatzeko.

tabernetan jarriko ditugu erakusgai BARRENen 25 urteotako azalak. Dendari eta tabernari batzuek eman diguzue baietza, baina zuetako beste norbaitek ekimen hau babestu nahiko balu bere erakusleihoan BARRENen



azalorri bati lekua eginez, mesedez, jar dadila gurekin harremanetan, barren25urte@gmail.com helbidera idatzita edo **943 744 112** telefono zenbakira deituta. Astebeteren ostean, azal guztiak bilduko ditugu berriro, protagonistei banatzeko. Beraz, zure azala gorde nahiko bazenu, zatoz bila BARRENera ekainaren 8tik aurrera.

150 lagun, kantu-dantza afarirako



Kalegoen plaza ez ezik Maalako parkea ere beteko dugu gaur, BARRENen urteurrena ospatzeko. Izan ere, 160 bat pertsona daude izena emanda kantu-dantza afarirako. Angel Mariezkurrena abeslari ezagunak eta bere taldeko bost musikarik girotuko dute afaria. Dantxarinekako Benta Peion, urtero arrakasta itzelez egiten den Kanta Zaharren Eguna ekimenaren bultzatzailea da Angel Mariezkurrena, sanferminetan Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregia goraino bete izan duena *Iruñea kantuan* saioan. Kantuan ekingo diogu gaur afaritari eta kantuan eta dantzan emango dugu gava. Afaria 21:00etan izango da, eta menua ondorengoia izango da: sarrerakoak, marmitakoa eta etxean egindako postrea. Jai eta lagun-giroa ziurtatuta dauzkagu, beraz, gauerako ere.

Gaur ez da dena bukatzen, baina _____

MAIATZAK 29, MARTITZENA

'Zer eman dio BARRENek herriari?'
mahai ingurua.

Non: Musika Eskolako auditoriumean
Ordua: 19:00etan



Ane Odria



Aitor Gisasola



Agurtzane Garcia



Ainhoa Lodoso
Aurkezlea

USUA *kafetegia*

943 256 028

- BOKATAK
- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK



943 574 947
608 740 526

Errosario kalea, 31 - Elgoibar

PIZZAK - BOKATAK
PLATER KONBINATUAK

asador 943 598 405

otzak

erretegia

FAMILIAKO MENUA
HARAGI PARRILLADA
BARAZKI PARRILLADA

Gosariak
Pintxoak
Oxitarlekoak
Plater Konbinatuak

ametsa *kafetegia*

943 530 465

TANTAKA
TABERNA

Aita agirre, 5

..... **Bokatak**

..... **Razioak**

..... **Plater konbinatuak**.....

943 030 736

Barrun



BIOTERRA
2018


GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina
FICOBA, Irun.

Gonbidapen hau mezu eta azokaren sarreraren aurkeztu



#Bioterra2018



bioterra.ficoba.org



Ficobera, zozoz irensean! **euskoaren**
Bran-Ficoba gurekin

Danobatek irabazien eta berrikuntza nagusien berri eman zien bazkideei urteko batzarrean



Danobatek urteko batzar nagusia egin zuen maiatzaren 18an. 250 langiletik gora elkartu ziren Elgoibarko Herriko Antzokian. Batzarrean jakinarazitakoaren arabera kooperatibarentzat 2017a urte "oso positiboa" izan da. Sektore batzuek beherrako tendentzia jarraitu arren, Danobatek eskaintzen dituen soluzioen dibertsifikazioak emaitza "bikainak" lortzea baimendu diela azaldu zuten. Hirugarren urtez jarraian, 100 milioi euroko muga gainditu dute eskaerekin, eta azken urteetan bezala, eskarien %90etik gora atzerrikoak izan dira.

Datuez gain, azken hilabeteetako berrikuntza nagusiak aurkeztu zituzten batzarrean. Batetik, hemendik aste batzuetara inauguratuko dituzten Italiako instalakuntza berriei buruz aritu ziren, eta, bestetik, Elgoibarren inauguratu berri duten Danobat Excellence Centre-a aurkeztu zuten. Artezketaren sektorean puntakoak diren instalakuntzok kooperatibak berrikuntza eta bikaintasunarekin duen konpromisoaren berme direla esan zuten, eta han azken belaunaldiko artezteko makinak eta doitasun handiko tornuak aurkitu daitezkeela zehaztu.

Herrian eta inguruan lan egiten duten elkarte zein eragile sozialei laguntzea eta gizartearekin duen konpromisoa indartzea ahalbideratzen dio Danobati emaitza on honek. Konpromiso horren adibide da 2017an Danobatek jaso zuen Euskararen Urrezko Bikain ziurtagiria eta Debabarreneko lehenengo industria enpresa izan da ziurtagiri hau lortzen. Euskararen normalizazio prozesuan egindako lanak eta euskarari dagokion garrantzia eta lehenetsuna emateak ahalbideratu dio Danobati ziurtagiri hau jasotzea.

Janari bilketa asteburuan

Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak deialdia egin dute Gipuzkoako elikagai bankuaren elikagai bilketan parte hartzeko. Maiatzaren 25ean eta 26an izango da Elgoibarko BM supermerkatuan 9:30etik 21:30era bitartean. Boluntarioak ere behar dituzte janaria jasotzeko eta lan horretan aritzeko prest daudenek 688 679 456 zenbakira deitu behar dute, 11:00ak eta 14:00ak bitartean.

1.028,83 euro minbiziaren
kontra egiteko

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkar-teak diru-bilketa egin zuen maiatzaren 12an. 1028,83 euro jaso zituzten, eta diru hori minbizia duten pertsonen eta haien familien arreta eta prebentzio arloko esku-hartze eta ikerkuntzarako erabiliko dute. AECCk eskerrak eman nahi dizkie elgoibartarrei eta diru bilketan parte hartu zuten elkarteko boluntarioei.

Gure Esku Dagoren mahaia

Gure Esku Dago ekainaren 10ean egingo duen giza katerako jendea sare-tzen ari da taldea. Herritarrek izena eman dezaten mahaia jarriko dute Elgoibarren gaur, maiatzak 25, Kultur Etxe aurrean 17:00etatik 20:00etara, eta 26an, Kalegoen plazan 11:00etatik 14:00etara.

Elgoibarren lurreratu da Gerbas, Abadiñoko panpina

Abadiñoko San Trokaz jaietako maskota da Gerbas panpina. Globo mordo bat lotuta zeruratu zuten jaien amaieran. Elgoibarko Gure Esku Dagoko kideek jaso zuten astelehenean Elgoibarren, Errotaberri plazatik gertu. Kasualitatez, Gure Esku Dagoko pankarta zuen soinean Gerbasek. Abadiñotik oso urrun amaitu izan du zenbait urtetan. Iaz, aldiz, ez zuten haren berri izan.



Punterengo makina erreminta BECen

Astlehenean irekiko dute Makina-Erremintaren Nazioarteko Biurteko azoka, Barakoldoko BECen, eta astebetetz makina-erreminta sektoreko azken berrikuntzak eta punterengo teknologia gertutik ikusteko aukera izango da bertan. Reportaje honetan makina erremintaren egungoaz eta azokaz jardungo gara. Gure bueltako enpresa asko izango dira egunotan BECen, baina badira azkeneko urteotan joateari utzi diotenak ere. Batekoen eta bestekoen ordezkariak ekarri ditugu gaur hona. 40.000 bisitari baino gehiago espero dituzte BECen.

- IRATI AGIRREAZALDEGI / AINARA ARGOITIA -

Nazioarteko liderrak diren 1.700 firmatik gora izango dira aurten BIEMHan, Makina-Erremintaren Nazioarteko Biurtekoan, eta izena emandako enpresen eta zerbitzuen izenak aintzat hartuta eta erakusgai izango diren produktuen eta berrikuntzen zerrenda kontuan hartuta, esan beharrik ez dago asmo handikoa izango dela azokaren 30. edizio hau ere. Garaia ere halakoxea du makina-erremintaren sektoreak, Antxon Lopez Usozek, AFM makina-erremintaren klusterreko lehendakariak jakitera eman duenez. Krisiaren aurreko sasoa berreskuratu ez duen arren, makina-erremintaren sektorea aspaldiko indartsuen dagoela nabarmendu berri du Usozek, eta horren erakusle izango da azoka bera ere.

ERREKORREN URTEA

Bi datu azpimarratu beharko genituzke Usozek emandako guztien artetik: batetik, fabrikazio aurreratuaren eta makina-erremintaren sektoreko ekoizpena %12,96 igo zela pasa den urtean, aurreikusitakoaren gainetik, eta inoiz ez beste fakturatu zela: 1.690,69 milioi euro. "Hamar urtean izandako zenbateko onena, nahiz kopuru errealetan oraindik tartea gelditzen den 2008ko datu historikora heltzeko". Bestetik, esportazioetan ere errekorra lortu dute AFMko enpresek: 1.233,37 milioi euro. Horri lotuta aipatu behar da, gaur egun sektoreak ekoizten duenaren parte handi bat esportatzen dela, zehatzago esateko, %72,95a.

Fakturazioa igo da, bai, hein handi batean, deformazioaren azpisektoreak izan duen bilakaeragatik, iaz %47,76 igo zelako. Baina horrek badu bere arrazoia: 2016an pilotutako eskaeraren zati handi bat 2017an fakturatu zela, eta 2016an, eskaerek %56 egin zutela gora. Esportazioetan ere errekorra lortu zutela esan dugu. Merkatu guztietan saldu dute sektoreko enpresek. Alemaniara %20 gehiago esportatu zuten iaz, adibidez, eta Estatu Batuetara, Kanadara eta Mexikora %15 gehiago. Espainian "ondo" saldu zuten eta Euskal Herriko salmenta ere ona izan da, baina, hala ere, krisi aurreko zenbakietara iristeko tartea badago, Usozen esanetan. Euskal Herrian eta Espainian esportazioak %24,43 egin du gora makina-erreminta sektoreak: dirutan, 726,36 milioi euro fakturatu, baina 2007ko zenbakietara iristeko, %20-30 egin beharko luke oraindik gora kopuru horrek.



ERAKUSTAZOKA BAINO GEHIAGO

Ekoizpen adimendua, sistema integratuak, nazioarteko aukerak, digitalizazioa... eskaintza oparoa izango da aurten ere azokan. Makineriaren, prozesu-automatizazioaren, erreminta eta osagaien eta metrologiaren sektoreetako enpresa nagusiek euren soluzio, material eta prozesu berritzaileenak aurkeztuko dituzte 50 herrialde baino gehiagotik etorritako profesionalen aurrean. Nork bere enpresaren irudia munduan zabaldu eta beste herrialdeetako erosle eta hornitzaileekin harremanak egin, akordioak gauzatu, eta kanpo-merkatuak aztertzeko aukera izango dute erakusle gisa doazen enpresek, tartean gure inguruko askok. Joango ez direnak ere badira, eta nahiz eta jo dugun haiengana azokara ez joateko arrazoiengatik inguruan galdezka, nahiago izan dute ez agertu, inork ez dezan ulertu BIEMH azokaren kontra egoteko arrazoiak dituztenik. Nork bere nabardurekin, baina arrazoi bat aipatu digute galdekaturakoek: azokara joateak bere kostua du, eta bezero gehienak kanpoan dituztenez, bideragarriagoa zaie indarra beste azoka batzuetan jartzea.

Makina Erremintaren Biurteko Azokan hutsik egiten ez duenetako bi dira DanobatGroup eta Unceta-Sariki, erakusle handietako bi. Aurten, 750 metro koadroko erakusketa gunea izango du azokan DanobatGroupek eta 252 metro koadrokoa, Uncetak. Itziariko MTEk, berriz, urteak egin ditu joan gabe, baina aurten azokan izango da, 40 bat metro koadroko erakusketa gunean. Nor bere arrazoiak eman dizkigu.

▶ PELLO RODRIGUEZ DANOBAT GROUPEKO ZUZENDARI NAGUSIA

◆ Zuek ez duzue hutsik egiten. Zergatik uste duzue beharrezkoa eta onuragarria dela azokara joatea?

Azoka hau oso berezia da guretzat, batetik, gure eskaintza merkatuari erakusteko bidea ematen digulako, eta bestetik, inguruko hornitzaile sarearekin eta gizar-tearekin lotura izateko lagungarri zaigulako. Azken batean, makina erremintaren sektorea hemen inguruan pilotzen da bereziki. Eskoletatik ere etortzen dira azokara eta guretzat hori ere oso interesgarria da, gaurko gazte hauek direlako guk etorkizunean beharko dugun gure talentua. Garrantzitsua deritzogu gazte hauek sektorean izaten diren aurrerapausoen berri izatea eta puntako teknologiak ikustea, sektorearekiko interesa pizteko haiengan.

◆ Zer daramazue azokara?

Danobat eta Soralue gure marka nabarmenenen makina aurreratuenekin goaz. Punta-puntako teknologiadun makinak dira, balio erantsi handiko piezen fabrikaziorako diseinatutakoak, automobilgintza, aeronautika, tren garraioa, energia eta xaffen deformazioa moduko sektore estrategikoetako fabrikatzaileen beharretara egokitutako soluzioak. Gure bi marka hauek lantegi eta fabrikazio ingurune adimendunak, elkarrekin konektatuak, automatizatuak eta erabakiak beren kabuz hartzeko gaitasunarekin eraikitzen laguntzeko balio digitaleko aukera zabala dute. Smart HMI da eramango dugun zerbitzu digitaletako bat. Interfaze adimendun bat da, makinarekin lan egiteko laguntzak eskaini eta eki-poaren egoerari eta funtzionamenduari buruzko denbora errealeko informazioa eskuratzea ahalbidetzen duena. Zerbitzu horrek ekipoen erabilgarritasuna handitzen du, programatzen laguntzen du eta



“Balio erantsi handiko piezen fabrikaziorako diseinatutako makina aurreratuenak eramango ditugu azokara”

mekanizazio ziklo espezializatuen zein maneiari eta mantentze lanei buruzko dokumentazioa aurkezten ditu pantailan.

Horrez gain, eta beste bi aipatzearen, Data System digitalizaziorako sortu dugun proiektua ere eramango dugu eta Control System sistemaren gaitasunak ere aurkeztuko ditugu. Big Data teknologietan eta datuak atzitzeko eta monitorizatzeko teknologietan oinarrituta dagoen zerbitzua da Data System sistema, makinaren egoera ezagututa hutsegitei aurrea hartzeko eta ekipoen produktibitatea hobetzeko diseinatutakoa, besteak beste. Control System sistema, berriz, fabrikazio lerro automatizatuak kudeatzeko sistema da. Kontrol prozesuak zentralizatuta eta ekipoen ego-

eren gaineko ezagutzan eta informazioaren zentralizazioan oinarrituta erabakiak hartzen ditu, eta hainbat abantaila eskaintzen dizkigu: datu eta adierazle-gakoen jarraipena egitea, txostenak prestatzea, prozesuen optimizaziorako informazioa sortzea eta segurtasuna handitzea. Eta horrez gain, artezketa, fresaketa eta torneaketa prozesuetan zein teknologia berrietan eta blanking laserrean zentralizatutako garrantzirik aurreratuenak ere aurkeztea.

◆ Daramazuen guztiak zer da berriena?

Danobat eta Soralue marketako makina aurreratu, soluzio aurreratu eta giltza-eskura eskaintzaz gain, zerbitzu munduko aurrerapausoak nabarmenduko nituzke. Izan ere, digitalizazio alorreko zerbitzuetan egin ditugun aurrerapenez gain, soluzio hauetan gure sendotzea erakutsiko dugu oraingo honetan. Badira jada urte batzuk gai hau lantzen ari garela, baina aurten bezeroen etxean martxan dauden hainbat digitalizazio soluzioren emaitzak erakutsiko ditugu azokan.

▶ JAKOBO TXAROLA MTEKO GERENTEA

◆ Ez zaituztegu BIEMHko zerrendan to-patu.

Izenez ez gara agertuko beharbada, baina aurten egongo gara. Aspaldi batean beti joaten ginen, baina 2002an edo laga genion joateari, eta gaur arte. Ez goaz, hala ere, erakusle handien artera. Distribuitzaile modura goaz, Euskal Herriko eta Espainiako merkaturan muturra sartze aldera, guk batez ere kanporako lan egiten dugulako. Alemanian-eta izen ona daukagu, baina hemengo merkaturan, batez ere Euskal Herrikoan, jende askok ez gaitu ezagutzen, eta ia ba! Europara eta Estatu Batuetara esportatzen dugu guk bereziki; Asian ez gara saiatu ere egiten. Gure ekoizpenaren %60 inguru Alemanian saltzen dugu, eta hango azoketara joaten gara, zer irabazi asko dugulako. Saltzeko aukera ikusten dugun lekura joaten gara, saltzera, eta ez besterik gabe gure izena ezagutaraztera.

◆ Zerekin zoazte BECera?

Buru automatikodun lau ardatzeko fresatzaile batekin. Handi nahirik gabe goaz eta burukomin handirik ez dugu hartuko. 40 metro koadro izango ditugu. Beste kontu bat izaten da Alemanian. Han, 500 bat metro koadro hartzen ditugu.

◆ Ze onura ikusten diezu azoka hauei?

Beti egiten dira harremanak eta saldu ere saltzen dira makinak. Kostu handia da

“Saltzeko aukera ikusten dugun lekura joaten gara, saltzera, eta ez besterik gabe gure burua ezagutaraztera”

azoketara makinak eramatea, eta zer esanik ez Alemaniakoetara, hemengoaren aldean garestiak direlako hangoak, baina egia da urte onetan berreskuratzen dela jarritakoa eta merezi duela. Hori bai, gauzak aldatu dira. Orain, azokak txikiagoak dira, tokian tokikoagoak, eta bezero gutxiago ibiltzen da. Gertukoetara edo etekina atera dezaketen azoketara joaten dira orain enpresak, baina bestela, nekez. Azoketara joateak merezi du, baldin eta inguruan bezero asko baldin badaude, baina gu ez goaz Alemaniara Frantziatik hara gure makinak ikustera etorriko direlakoan. Eta hemen berdin. Madrilgoak-eta etorriko dira, baina Bartzelonakoak, gero eta gutxiago. Momentu honetan hiru makina erosi beharra badute, bai beharbada, baina bestela zaila. Gaur egun, denboraz sasoi batean baino larriago gabilta, eta Internetez dena ikus dezakegu. Makinak piezaz pieza, planoz plano ikusi ditzakegu, eta galdetuz gero, berehala bidaltzen ditugu denok ere gure eskaintzak eta nahi beste katalogo. Lehen, ez. Lehen,

bidaltzen zizkizuten katalogo batzuk, sei urtean berriro gabeak.

◆ AFMk errekorren urtea izan dela esan du. Zuentzat?

Guk fresatzaileak egiten ditugu, eta beste egoera bat bizi dugu. 2008an gaur halako bi fakturatu genuen, eta 2016an, 2008an fakturatu genuenaren erdia; beraz, gure azpisektore hau ez doa guk nahi bezain ondo. Azpisektore askotan, deformazioarenean, tornuetan..., gerturatu dira 2008ko fakturazio kopuru horietara, edo are, azpisektore jakin batzuetan, hobetu ere egin dute ordukoa, baina gu orduan fakturaturakoaren erdia fakturatzen ari gara. 2017an igoko zen %15 batedo, eta aurreikusten dugu aurten ere haziko garela beste apurren bat, baina 2008ko zenbakietatik urrutik gaude. Merkaturaren ajeak dira. Munduan gero eta fresatzaile gutxiago behar dira eta... Lehia handiena hemen bertan dugu guk. Alemanian bada enpresa bat edo beste, baina oso teknologikoak dira, eta joan zen astean jakinarazi zuten, gainera, kiebran daudela.

◆ Ze etorkizun ikusten diozu BIEMHari?

Etorkizuna badu, makina erremintako ekoizleak hemen daudelako eta instituzioek ere interes handia dutelako honi bultzada emateko. Izena badu eta eustea komeni zaigu gainera.

▶ AINHOA ISASI SARIKIKO MARKETING ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Grupo Unceta (Unceta herramientas de calidad, Metrología Sariki eta Labmetro) hirugarren pabiloian (C-21) egongo da kokatuta aurten Makina Erremintako azokan, eta 252 metro koadrotan, merkaturako metrologia eta erreminta profesional berritzaileenak erakutsiko ditu.

◆ Zein dira aurten azokara eramango dituzuen berrikuntzak?

Produktzio automatizatuaren kontrola

“Makina Erremintaren azoka dagoen urtean, marketing-eko aurrekontuaren erdia horra bideratzen dugu”

egiteko gure teknologia aurreratuenak eramango ditugu. Prozesuan bertan metrolo-

gia aplikatzearen abantailak erakustea da gure helburua, eta horretarako, Sariki Solutions izeneko integrazio ezberdinak garatu ditugu. Industria 4.0n teknologien hibridazioak abantaila asko ekartzen ditu, prozesuak uneoro bermatuz eta informazioa enpresan partekatuz, erabaki onak hartzeko. Abiadura handiko hiru dimentsioak lantegian erabiltzeko, ikusmen artifizialeko kamerak, 3D eskanerrak,

laborategirako zehaztasun handiko metrologia sistemak... ikusteko aukera izango dute gure erakusketa gunera gerturatzen direnek.

◆ Zergatik uste duzue beharrezkoa dela bi urtean behin azoka honetara joatea?

Bilbokoa gure azoka da. Bi urtean behin aukera ezin hobea dugu bezeroekin eta merkatuarekin hitz egiteko, eta konfirmatzeko, enpresa bezala, gure estrategia bide honetik doala. Azokan, gure berrikuntza eta garapen arrakastatsuenak erakusten dizkiogu merkatuari. Bilbon Makina Erremintaren azoka dagoen urtean, marketing-eko aurrekontuaren erdia hara bideratzen dugu; ezin dugu ukatu beraz guretzat garrantzia handia duela.

◆ Beste azoka batzuetan ere hartzen duzue parte. Zein etorkizun ikusten die-



zue era honetako azokei?

Aurten Sevillan izan gara ADM azokan [*Aerospace and defense meetings*]. Guretzako azokak tresna bat

gehiago dira merkatu komunikazioa egiteko, beti strategiaren batekin joatea garrantzitsua da gero emaitzak neurtzeko eta erabakiak hartzeko.

IMH WORKINN EMPLEGU GUNEA



Aurreko urteetan bezala, aurten ere izango du bere lekua IMHk Erremintaren Biurtekoan.

AFM Clusterrarekin batera egongo da BECeko Atrioko erakustokian. "AFMko zuzendaria gure presidentea da, eta IMHren bizitza guztian eskutik joan gara. Bateratze prozesuan makina bat pauso eman dira urteotan, eta orain dela 20 urte 100 enpresa zeuden tokian, orain, 500 daude", azaldu du IMHko komunikazio arduradun Edurne Bilbao. Makina Erremintaren Clusterraren alderdi guztiak bateratzea dute helburua, baita beraiena ere: hezkuntza

BIEMHeko bost tokitan izango da IMH. Workiin enplegu gunea da horietan beraiantzat garrantzitsua. Izan ere, irailan abian jarriko duten Digital Manufacturing Unibertsitate Master Duala sustatzea izango dute helburu. "Talentuak eta enpresak erakarri, elkarrekin lotu eta enpresek behar dituzten Industria 4.0 proiektuak garatzeko ezinbesteko gune bihurtuko da Workiin, master dualean graduatzen direnek interesa daukatelako beren perfil profesionala lantzeko", azaldu dute IMHtik. Hori dela-eta, Unibertsitate Masterrari buruzko bi informazio saio ere eskainiko dituzte: maiatzaren 30ean, 15:00etan, eta 31n, 11:45ean. Horrez gain, heziketa ziklo dualei buruzko informazioa ere zabalduko dute erakustokian, IMHk eredu dualean duen 23 urteko eskarmentuari esker ikasleei kalitatezko enplegua bideratzen dietela erakutsiz.

Gune berean IMHko lan-poltsarako CVak ere jasoko dituzte. Irakasle eta teknikariek unibertsitate gradu zein ikastarotarako eman ahal izango dute izena.

Horrez gain, AFM-ADDIMAT erakustokian (1. pabiloian), IMHko eskaintza azaltzen izango dira; Siemens erakustokian CNC Sinustrain buruzko saio laburra emango dute IMHko teknikariek; Berkoa enpresaren erakustokian egongo da ikusgai IMHk Berkoarekin batera sortutako multitask ataza-anitzeko makina didaktiko berria. Proiektu honek Bankia-Dualiza saria eskuratu du. Bestalde, BIEMHen hainbat hitzaldi teknologiko eskainiko dira eta IMHko bi adituk fabrikazio gehigarriaren inguruko eta Big data ziber segurtasunaren inguruko hitzaldiak moderatuko dituzte.

Enpresari, teknikari, irakasle eta arduradunena ezezik bisitari gisa ezinbestekoa da ikasleen presentzia ere. Beraz, IMHko heziketa zikloetako ikasle guztiekin azokara irteera antolatuko dute.

Tradizio industrialak erakusgai

Elgoibarko enpresek eta IMHk ezezik Elgoibarko Makina Erremintaren Museoak Barakaldoko BECeko kanpoaldean Gipuzkoan ekoiztutako makinez osatutako bost kabina ipini ditu erakusgai dokumentuekin ekainaren 8ra bitartean. Tradizio industrialak azalduko dute, pedal eta pertikadun tornua (Erdi Aroa), armagintza (XVIII. mendea), makinismoa (XIX. mendea) eta EE artezteko makina zentrogabeak.

“Eranspen bidezko fabrikazioak produkzioa azkartzen du”

▶ AMADEO CORRIUS PIXEL SISTEMASEKO GERENTEA



Pixel sistemas enpresa Makina Erremintako azokan izango da 3D inpresio arloan eskaintzen dituen fabrikazio sistemak azalduz. Diseinu departamentuetan erabilgarria den metalezko inpresora da berrikuntza nabarmenena. Teknologia honek hamar aldiz gutxitzen du fabrikazio kostua orain arteko metalezko teknologiekiko alderatuz. Sistema berritzaile honen berri eman digu enpresako gerenteak.

◆ Eranspen bidezko fabrikazioa iraultzailea da. Zertan datza?

Hutsetik abiatuta, materiala erantsiz, sortzen dira piezak inpresio bidez. Sistema honekin ia askatasun osoa daukagu edozein diseinu fabrikatzeko. Orain arteko teknologiak injekzioa, tresneria eta moldeak behar ditu, eta horiek muga dira. Eranspen bidezko teknologia bidez ez da mugarik, behar den materiala baino ez da delako erabiltzen.

◆ Iraultzailea izanik aurrerapenak ekariko ditu. Zein dira onurak?

Behar den materiala besterik erabiltzen ez badugu, energian daude onurak. Pisu handiko piezetan, zenbat eta material gehiago kendu orduan eta garestiagoa da fabrikazio sistema. Orain arte asko pentsatu behar zen zenbat material kendu

behar zen kopurua zenbat eta handiagoa izan kostua gehitzen zelako. Bestalde, pertsonalizazioa iristen gara. Auto, hegazkin edo makinaren barnean aukera daukagu egokitzeko. Baina adierazle nagusia pertsona da. Protesiak edo mugitzeko osagarriak diseinatu ditzakegu modu partikularrean.

◆ Zein esparrutan erabiltzen dira?

Gehien bat automozioan, aeronautikan, eta gero eta gehiago, makinetan. Hasieran, lan hau erabiltzen zen prototipoak egiteko, diseinu bat baieztatzeko beharrezkoa zelako tresna eta prozesu horiek sortzea. Beraz, berehala hasi zen eranspen bidezko fabrikazioarekin prototipoak egiten. Hori egindakoan prozesu zaharrera itzuli behar zen, eta pentsatu genuen modu berean egitea. Nahiko az-

karra zen. Produkzioa begira, eranspen bidezko fabrikazio makinak sartzen ari dira eta horrek teknologiarri buelta osoa emango dio. Prototipoetan gabiltza eta hor azkartasuna hain garrantzitsua ez izan arren, produkzioan azkartzea behar dugu.

◆ Orain arte batik bat plastikoa aritu zarete. Baina beste material batzuekin ere aritzen zarete, ezta?

Plastiko arruntak zein aurrerakoiak eta polimeroak erabili ditugu, baina berrikuntzarik handiena metalean dago. Orain arte metala lantzeko piezak oso instalazio konplexuak behar zituzten eta ez zen erraza edozeinek edukitzeko. Orain, Desktop Metal konpainian sortutako teknologiak erraztu egiten du metalezko piezak izatea eta plastikozko makinak bezain erraz egiten dituzte.

◆ 3D inpresio bidez aritzen zarete, baina aurrerapausoak ere eman dituzue. Etorrizunera begira zein dira zuen helburuak?

Metalezko makinak produkzioa bideratzea da asmoa, orain ez daudelako horretara egokituta. Hemendik bi urterako horretarako makina bat izango dugu galdaketarekin lehiatzeko. Horrek aukera emango du produkzioan gauza bereziak egiteko: ez genuke izango pieza bat 1.000 aldiz eginda, baizik eta 1.000 pieza ezberdin aldi berean. Horrek pertsonalizazioarako aukera ematen du. Bestalde, teknologia gure eskutan daukagu baina diseinua eta pertsonak egokitu behar dira. Horretarako prestakuntza aldetik lan egin behar da eta IMH, esate baterako, arlo hori lantzen ari da.

DANOBATGROUP



SORALUCE



DANOBAT


EXPERIENCE DIGITALIZATION

Ezagutu gure alor digitaleko zerbitzu aurreratuek eskaintzen duten balio erantsia eta izan ezazu datuek zure fabrikazio prozesuetarako duten potentzial guztiaren berri.



30 BIE MH 5 PABILIOIA
FOR MARCH 2018 C-03 STAND-A

www.danobatgroup.com



Zer da EUSKARALDIA?

EUSKARALDIA

AHOBIZI? BELARRIPREST?



EUSKARALDIA azaltzeko BATZAR INFORMATIBOA
Maiatzak 30, asteazkena, 19:00
Musika Eskolako auditoriumean

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea:

Danobatgroup, Elgoibarko Izarra Euskaltzafean Topagunea, Elgoibarko Udala, Elgoibar Ikastola, Elgoibarko Haurreskola, Eusko Alderdi Jeltzaflea, Euskal Herria Biltze, Elgoibarko Herri Eskola, Ikastolako guraso-kontseilua, Kalamua guraso-elkartea, Musika Eskola, Morraiko mendizale-elkartea eta Udala Euskaltzafia.

Burdingileen eta ikazkinen lanak irudikatuko dituzte aurten Trinitateetako danborradako karrozetan

A tabal taldeak jadanik prest dauka Trinitate jaietarako danborrada. Bihar, zapatua, 23:00etan hasiko da Kalegoen plazan. Danbor eta kupel joleak batetik eta armadunak bestetik ikuskizuna eskainiko dute. Ez dira izango baina ikuskizuneko parte bakarra, urtero bezala karroza berriak ere izango baitira. Iaz CD Elgoibarren urteurrenaren harira egin zuten karroza, baina Atabal elkartekoek ez zuten urteurrenen dinamikan erori nahi. Beraz, aurten, garai bateko lanbideak izango dira bi karrozetako gaiak. Elgoi-

barren sartu ziren lehen lanbideak: burdinginak eta ikazkinak.

Burdingileen karroza egiteko Mirandaolan, Legazpin, izan ziren hango burdinolan eta Euskal Burdinaren Museoan. Gero burdinez egiteko karrozarako ideiak jaso ezezik han utzi dizkieten arropak eta erremintak ere hartu dituzte. Bestalde, sutegia eta ingudea beraiek lortu dituzte. Beraz, burdina forjatzen ari direla antzetzuko dute.

Ikazkinen lana irudikatzeke, berriz, txondorrek besterik karroza bat egingo dute ikatza nola egiten zen erakutsiz. Ho-

rretarako egurra erabiliko dugu, eta barrutik kea aterako da. Bi karroza izanik espero dute herritarrek garai bateko lanaz gain, karrozak prestatu dituztenen lana ere estimatzea.

Omenaldia da danborradaren beste une bat eta aurten Txomin Mujika omenduko dute. Udal Musika Bandak jartzen dizkio doinuak danborradari eta Mujikak banda iaz utzi zenez gogoan izango dute. Gainera, danborradako *Pantxika* eta *Beti Elgoibar* piezak berak konposatutakoak dira, eta aurten bere beste kantu bat estreinatuko dute.

Eneko Iturbek euskal diseinatzaile onenaren saria jaso du Bilbao International Art & Fashion lehiaketan



Bilbao International Art & Fashion moda lehiaketan saritu dute Eneko Iturbe diseinatzaile elgoibartarra. Kategoria bereziko saria jaso du eta pozik agertu da: "sari potoloena lortu ez badut ere, oso pozik nago euskal diseinatzaile onenarena lortuta".

Nazioarteko moda lehiaketan 90 herrialdeetako 1.673 diseinatzailek aurkeztu zituzten euren lanak eta 30 aukeratu zituzten finalerako, horietako bat Eneko Iturberen *Terre* bilduma. Joaquin Vaquero Palacios arkitekto eta pintore espainiarren lanetan oinarritutako bilduma izan da.

Sara Sozzani Mainok zuzendu du epaimahaia. Gabriela Grajales kolonbiarra saritu dute janzteko soinekoen diseinua kategorian eta Jimmy Junichi britainiarra osagaiean. Antolatzaileek, guztira, 25.000 euro banatuko dizkiete hiru sarituei, euren diseinatzaile ibilbideei bultzada emateko.

Erandioko Jose Miguel Arranzek irabazi du Kaleko Margo Lehiaketa

Kaleko Margo Lehiaketa egin zuten joan zen zapatuan Elgoibarren. Euskal Herritik, Frantziatik, Kantabriatik, Errioxatik eta Asturasetik etorritako 16 margolarik hartu zuten parte, tartean bi herritarrek. Erandioko Jose Miguel Arranz de Juanek eginiko margolanak jaso zuen lehen saria. Egur Arte Tailerreko antolatzaileen esanetan maila handiko artelanak sortu zituzten. Arte munduarekin lotura duten pertsonen osatutako epaimahaiak horrela banatu zituen sariak: Lehen saria Erandioko Jose Miguel Arranzentzat, bigarrena Ermuako Jon Idigorasentzat eta Bordeleko Jean Jacques Daugarentzat hirugarrena. Herriko margolan onenaren saria, berriz, Ibon Serranok jaso zuen. Bihar, maiatzak 26, izango da azken eguna parte hartzaile guztiak margotutako lanak ikusteko aukera Kultur Etxeko Sotoan, 18:30etik 20:30era.




Arilanekek hirugarren postua lortu zuten Zaragozan jokatu zuten Estatuko sektorean



Sanloko Arilan kadeteen taldeak Espainiako Eskubaloi Txapelketako bigarren fasea jokatu zuten Zaragozan. Jokaturako hiru partidetatik bi irabazita hirugarren postua lortu zuten elgoibartarrek, baina ez dute azken faserako sailkatzerik lortu. Lorea Gabilondok entrenatutako neskek etxeko taldearen aurka jokatu zuten lehen partida, amaieran txapeldun izan zen A.D. La Jotaren aurka. Zaragozakoez 34-28 irabazi zuten. Bigarren jardunaldian Knet Calasancio izan zuten aurkari elgoibartarrek. Partida garrantzitsua zen, galduz gero hor amaitzen zelako Arilaneen ibilbidea; irabaziz gero, 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidarako sailkatuko liriteke. Lehen partidain baino hobeto aritu ziren Arilaneek jokalariek, eta Calasancio baino gehiago zirela erakutsi zuten, 20-27 irabaziz. "Defentsan askoz sendoago arituta eta erasoan hobeto asmatuta: lan biribila egin zuten", esan du Gabilondok. Domekan HBC 74 Merceria Yolanda Kantabriako taldearen aurka jokatu zuten hirugarren postua. Zaragozan jokatu zuten partidarik onena egin zuten Arilaneek, eta 20-27 irabazi zuten.

Debabarreneko Raida Idorben hasiko da aurten

Morkaiko mendi taldeak antolatuta, Debabarreneko laugarren orientazio raida jokatu dute Elgoibarren ekainaren 2an. Aurten Idorbe auzoan izango da probaren irteera eta parte hartzaileei egiten dieten harrera. Kirolariek 18 kilometroko trekking bat eta 40 kilometroko mendi bizikletako proba ere osatu beharko dituzte. Egin beharko



dituzten proba berezien artean, espeleologia proba bat izango da berritasun nagusienetakoa, hautazko proba izango bada ere. Abilezia proba bat ere antolatu dute eta argazki bat erabiliz orientazioa lantzeko beste bat ere bai. Aurten ere, Abenturetako Raiden Iparraldeko Ligako proba puntugarria izango da. Iaz hasitako bidetik, *Familiar* izeneko modalitatean parte hartzeko aukera dute guraso eta seme-alabek. Orientaziorako gaitasun apalekin ere egiteko moduko proba izango dela azaldu dute, eta familiak animatu dituzte parte hartzera. Informazio osoagoa: debabarreneraid.wordpress.com web orrian.

Decak Gipuzkoako Kopako finala jokatu dute



Gipuzkoako Bigarren Mailako Kopako finala jokatu dute Deca eskubaloi taldeak, zapatuan, IMH Kiroldegian. Sanloko jubenil mutilen taldeak Orioko Eskubaloi Lagunak ZKE taldea izango du aurkari, 18:00etan hasiko den partidain. Bigarren Kopako final bat ere jokatu da zapatuan IMH Kiroldegian, nahiz eta final horretan ez den Elgoibarko ordezkariak izango. Usurbil eta Tolosako taldeek jokatu dute finala, 16:00etan.

Elgoibarko palistak Herriartekotik kanpo, tantoen aldeagatik

Elgoibar eta Azpeitiko palistek Herriarteko txapelketako final zortzirenetako kanporaketako itzulerako partidak jokatu zituzten, aurreko barixakuan, Ikastolako frontoian. Azpeitian jokaturako neurketetan bi partida irabazi eta hirugarrena galdu zuten elgoibartarrek eta alderantziz gertatu zen oraingoan: bakarra irabazi zuten etxekoez, eta bi partida bisitarien. Bakoitzak hiru partida irabazi dituen arren, tanto gehiago lortu dituztelako sailkatu dira azpeitiarrak final laurdenetarako. Frontoi osoko buruz burukoan Gorka Lizarralde elgoibartarrak 7-20 irabazi zion Oier Alkortari. Frontoi osoko binakakoan, Beñat Arrizabalaga eta Ibon Larrea elgoibartarrek 20-15 galdu zuten. Azken partidain, zazpi koadro barruko buruz buruko lehian, Mikel Arrietak 5-20 galdu zuten Asier Eigurenen aurka.



180 neska-mutilek hartu zuten parte Igeriketa Egunean

Elgoibarko Igeriketa Eguna ospatu zuten herriko igerilari gaztetxoek joan zen maiatzaren 19an, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Elgoibarko Igeriketa Taldeko kideek esan dute giro onean joan zela eguna. Guztira, 6 eta 14 urte arteko 180 umek hartu zuten parte Igeriketa Taldekoek prestatutako jolasetan eta probetan. Parte hartzaile guztiek jaso zuten oparia bukaeran.

Beste Nordic Walking saio bat antolatu du Udal Kirol Patronatuak ekainaren 2rako

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak sedentarismoa ekiditeko herritarrentzat antolatu dituen jardueretako bat da Ipar Martxa edo Nordic Walking-a. Bastoien laguntzaz, zangoei ez ezik, besoei eta orokorrean gorputzaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da. Edonork praktika dezake. Patronatuak hilabetero saio bat antolatzen du, eta hurrengoa ekainaren 2an izango da. Mintxetan hasiko da, 10:30ean, eta bi orduko ibilbidea egingo dute. Beharrezko bastoia Udal Kirol Patronatuak lagatzen ditu. Patronatuko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 10 euro. Maiatzaren 28ra arte eman daiteke izena Olaizaga Kiroldegian edo Mintxetan.



Imanol Albizuk eskura du Urrezko Binakako Harri-jasotze txapelketako finalerako sailkatzea



Urrezko Binakako Harri-jasotze txapelketako jardunaldia jokatu zuten domekan Hernialdeko Udal Pilotalekuan. Hiru bikote aritu ziren lehia, eta Imanol Albizu *Goikoetxek* eta Xabier Peñak osatutako bikoteak erakustaldia eman zuen. Elgetan bizi den elgoibartarrak eta Peña Aizarnazabaldarrak 9.801 kilo altxatu zituzten jardunaldiko markarik onena eginez. Marka horri esker gainera, sailkapen nagusiko lehen postua lortu dute, bien artean 18.889 kilo altxatuta baitituzte orain arte jokatu dituzten jardunaldietan. Ia ziurtatuta dute ekainaren 3an Azpeitian jokatzekoa den finalerako txartela.

Igoera jokoan izango dute Haundik eta kadeteek zapatuan Mintxetan



Futbol jardunaldi zirrargarria izango da C.D. Elgoibarko hiru talderentzat datorren zapatukoa. Haundik igoera kanporaketako itzulerakoa jokatu du Mintxetan, Andoaino Euskalduna taldearen aurka, 17:30ean. Joanekoan bana berdindu zuten. Kanporaketako galtzaileak Erregional Preferente mailan jarraituko du hurrengo denboraldian. Aldiz, irabazleak Ohorezko Erregional Mailara igotzeko aukerak izan ditzake. Kadeteen taldeak ere Mintxetan jokatu du, bihar, Euskal Ligara igotzeko Hiruko Finala. Elgoibartarrek Amurrioko Kaskagorri taldearen aurka jokatu dute 11:00etan. Partida horretako galtzaileak Bilboko Deusto taldearen aurka jokatu du gero. Eta lehen partidako irabazleak Deustoren aurka jokatu du 13:00etan. Azkenik, Lehen Erregional mailako taldeak Kopako finala jokatu du Orion, Astigarragako Mundaroren aurka.

Arrizabalaga eta Lizarralde txapeldun Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekian



Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekiaren 14. ekitaldia jokatu dute azken hilabeteetan Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan. Joan zen zapatuan jokatu zituzten finalak eta, Bigarren Mailan, Kepa Arrizabalaga eta Gorka Lizarralde elgoibartarrak gailendu ziren. Ia bi orduko partida lehiatua jokatu ostean, Lagunak Pilota Eskolako pilotariek 25-19 irabazi zieten Andueza eta Rodriguez urretuarrei. Bikote elgoibartarrari ez zitzaion zaleen babesik falta izan harmailetan, Elgoibartik joandako 25 bat lagunuen animoak izan baitzituzten alde.

Javier Varona gailendu da Euskal Herriko Basoko Arku Tiraketa Txapelketan



Elgoibarko Zarta arkulari taldeko bost kidek hartu zuten parte Ordizian jokatu zuten Euskal Herriko Basoko Arku Tiraketa Txapelketan, eta lehenengo bi postuetan sailkatu ziren bi taldekide, arku instintiboaren modalitatean. Javier Varonak irabazi zuen proba, 352 puntu eskuratuta. Hala, iaz Zartako kide Hugo Sierrak irabazi zuen titulua eskuratu du Varonak. Irabazleak baino puntu bat gutxiago lortu zuen Zartako Jose Luis Garciak, 351 puntu, eta bigarren postuan sailkatu zen. Hugo Sierra eta Rafael Segui 8. eta 9. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren, eta 15. postua eskuratu zuen Sergio Fernandezek.

Mailari eutsi dio Viento Sur Saskibaloia taldeak

Gipuzkoako Lehen Mailan lehiatuko da hurrengo denboraldian ere Viento Sur saskibaloia taldea. Kostata eutsi dio, ordea, mailari. Liga Txapelketa 11. postuan amaitu zuten elgoibartarrek (13. eta 14. sailkatuak jaitsi dira) eta 12. sailkatuaren aurka jokatu dute mailari eusteko kanporaketa, Donostiako Take Orbela taldearen aurka. Donostian jokatu zuten joaneko partidaren, elgoibartarrek 55-64 irabazi zuten, baina itzulerako partidaren 49-52 galdu zuten, joan den zapatuan Olaizaga kiroldegian. Hala, joaneko partidaren lortu zuten bederatzi puntuko alde erabakigarria izan da mailari eusteko. Viento Surrek iaz lortu zuen mailaz igotzea eta aurten igarri dute alde. Bederatzi partida irabazi eta hamazazpi galdu dituzte.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile. ☎ 632 737 903

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile. ☎ 653 156 403

Adinekoak zainduz egingo nuke lan. Berehala hasteko prest. ☎ 633 351 705

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Zaintzak ospitaleetan egiteko geru. Esperientzi handia daukat. ☎ 680 226 039

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Zaintza lanak gaurtan eta ospitaleetan ere egiteko geru. ☎ 690 687 395

Baserriko lanetan, garbiketan, pintura eta mekanika lanetan edo pertsona nagusiak zainduz arituko nintzateke. Etxeko langile egoteko prest. ☎ 688 853 894

Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 631 969 760

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. ☎ 638 338 816

Adinekoak zainduko nitzuke. Medikuntza ikasketak ditut. ☎ 688 744 609/615 526 474

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka. ☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Paperak dauzkat. ☎ 634 709 827

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. ☎ 640 742 618

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka, egunez edo gauzez. ☎ 628 238 955

Etxebizitzak eta atariak garbitzeko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Berehala hasteko geru. ☎ 631 620 344

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Berehala hasteko geru. ☎ 648 039 187

Pertsona nagusiak edo umeak eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 685 724 801/943 748 899

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka, gauzez edo etxeko langile modura. ☎ 631 891 709

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Garbiketa lanetarako ere geru. ☎ 684 173 729

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago eta baita garbiketa lanak egiteko ere. Interna moduan, asteburuetan ere bai. ☎ 688 652 050

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Arratsaldeetan. Esperientzia daukat. ☎ 617 571 210

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Asteburuetan bakarrik. ☎ 631 613 245

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko geru. ☎ 612 518 050

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. ☎ 688 261 395

Adinekoen zaintzan, gidari edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest. ☎ 655 132 769

ETXEBIZITZAK.....
Babes ofizialeko etxebizitza salgai Gabriel Kurutzelaegi 2an (Ikastola ondoan). 70 metro koadro + garajea + trasteleku. ☎ 690 857 510

Etxebizitza behar dut alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 162 798

Etxebizitza berria salgai Santa Klara kalean. 75 metro koadro. Bi logela, bainugela, jangela-egongela eta sukaldea. Oso argitsua, egun guztian barrena eguzkia sartzen da. Hormak eta lurrak berri berriak. ☎ 615 725 321/653 136 107

LOKALAK.....

Lokala alokagai Olasoko industrialdean. 200 metro koadro + 70 metro koadroko solairu artekoa. Instalakuntza osoa eginda. ☎ 649 258 913

OSPAKIZUNAK.....

1949an jaiotako bazkaria, ekainaren 2an. 13:00etan argazkia San Bartolome elizan. Jarraian, luntxa Ibai-Ondon eta 14:30ean bazkaria Sigma jatetxean. Izena emateko azken eguna: maiatzak 31. 55 euroko ingre-

soa La Caixan: ES18 2100 41 4168752100335788.

1953. urtean jaiotako eta aurten 65 urte beteko dituzten elgoibartarren jaiotako ekainaren 16an. 12:30ean Maalako elizan meza, gero luntxa eta talde argazkia, eta jarraian bazkaria Sigma jatetxean. Izena emateko 65 euro sartu, ekainaren 5a baino lehen, Rural Kutxan: ES90 3008 0182 8837 5585 7616.

1957an jaiotako ospakizuna uztailaren 7an. 12:00etan Kalegoen plazan. Luntxa, bazkaria eta dantzaldia igma jatetxean. 47 euro ingesatu eta kontzeptuan izena jarri Kutxabaneko ES95 2095 5036 5091 1797 4235 kontu zenbakian. Izena emateko epea: ekainak 30.

1963an jaiotako eta aurten 55 urte betetzen dituzten ospakizuna ekainaren 2an, Sigma jatetxean. (luntxa, bazkaria eta dantzaldia 55 euro / gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Izena emateko azken eguna maiatzak 30. ES70 3035 0007 25 0071134765 (Euskadiko kutxa).

1973n jaiotako ospakizuna ekainaren 23an. 13:30ean hitzordua Kalegoen plazan. Bazkaria, musika eta gaueko mokadutxo Sigma jatetxean. Izena emateko azken eguna: ekainak 18a sartu 55 euroko ingresoaren zenbaki honetan: ES 15 3035 0007 27 007 1135463

BESTELAKOAK.....

Oxelo markako salto egiteko patinete urdina desagertu da Tantaka tabernaren inguruan. Estimatu handitan daukagu eta izena idatzia dauka. Hartu duenak deitu. ☎ 699 143 767

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Vasca Administradores Locales Empresarios



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko beheko solairuan lokal bat saldu zuten orain dela zenbait hilabete. Orain, komunitateko agiriak eskatzen ari da lokalaren aurreko jabea, esanez, eman zizkioten arren, galdu egin dituela. Presidentea naizenez jakin nahi nuke dokumentazioa eman behar al diodan.

Ez dago lege berezirik informazio eskubideari buruz komunitate arduradunentzat. Honek ez du esan nahi jabeek ez dutenik eskubiderik komunitatearen martxari buruzko informazioa jasotzeko. Legearen arabera urtean behin jabeen bilera egin behar da aurrekontuak eta bestelako kontuak adosteko. Baina jabeek datuen eta agirien berri izan behar dute aurrekontuei eta beste kontuei buruz eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

Legearen arabera administratzailea arduratu behar da dokumentazioa zaintzeaz legez ezarritako denbora tartean, jabeen esku ipiniz. Dokumentazio hori jabeen esku jartzea jabeekideek komunitatearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko duten eskubide orokorrari dagokio. Bestela, legeak ez du ezer esaten aurreko jabeak ugazaba zireneko dokumentu eta informazioaren gainean dituzten eskubideei buruz.

Aholkua: Legeak aitortutako eskubideak oraingo jabearenak bakarrik dira, horregatik ari da legea titularrei buruz. Beraz, ez dago derrigortuta dokumentazioa ematera jadanik jabe eta komunitateko kide ez denari.



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Amama Mari Luz**, maiatzeko lorea! Ondo ospatu zure eguna! Muxuak etxekoan partetik.



Zorionak, **Jare**, gaur zure urtebetetzea delako. 7 muxu handi etxekoan partetik.



Zorionak, **Intza**. Maiatzaren 31n 6 urte eta jadanik ospatzen zabilzta. Etxekoon patxo pila bat, politta.

OSPAKIZUNAK



1988an jaiotako elgoibartarrok bazkaria egin genuen joan zen larunbatean. Plazer handi bat izan zen berriz elkartzea. Mila esker guztioi.



Zorionak, **Iñigo**, igandean 3 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasatuko dugu. Muxuak familiakoan partetik.



Zorionak, **Asierino**! Zurekin batera ospatzeko desiatzen gaude. Muxu handi bat etxeko txikiari.



Zorionak, **Elaia**, 8 urte bete dituzulako. Ondo-ondo pasa eta muxu handi bat!

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Asuncion Otegui Zabala



2018ko maiatzaren 18an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



RPS 183V12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada



25 BARIXAKUA

18:00 *Barrenetik azalera* ekitaldia. BARRENek 25. urte. Kalegoen plazan.

17:30-19:00 Haur eta gurasoen futbolen txapelketa. Ludotekan.

18:00-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emaitzen elkartearen.

26 ZAPATUA

11:00 Ingeniaritza dualeko eta Heziketa Zikloetako informazioa. IMHn.

27 DOMEKA

18:00 San Bartolome jaiak antolatzeko batzarra Kultu Etxeko sotoan. Antolatzailea Maalako Jai Bartzordea.

28 ASTELEHENA

18:00-20:00 Hausnarketa saioa: *Emakumeen ondoezak*. Gidaria: Lorea Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Jabekuntza Tailerrak Berdintasun Saila.

30 EGUAZTENA

18:00 Heziketa zikloetako informazio saioak. IMHn.

31 EGUENA

17:30 Bertso jaialdia. Herri Eskolako eta Ikastolako 4. mailako ikasleak. 19:00etan 5. mailakoak. Antzokian.

1 BARIXAKUA

19:00 Elgoibarko dantzari bakarlariekin erakustaldia. Kalegoen plazan.

TRINITATE JAIK ELGOIBARREN

Maiatzak 25, 26 eta 27

25, BARIXAKUA

21:00 Kantu eta dantza afaria, Angel Mariezkurrenarekin. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Laguntzailea: Udaleko Kultura Saila. Maalako parkean.

26, ZAPATUA

10:00-17:00 Trinitateetako azoka berezia. Antolatzailea: Debemen.

10:00-14:30 Elgoibarko baserrietako produktuak salgai. Lekuederren.

10:00-17:00 Elgoibarko baserrietan hazitako abereak. Trenbide kalean.

10:30 Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.

11:00 Kalitatezko produktuen dastaketa (*Lumagorri* oilaskoak eta *Basatxerri* saiheskia eta hirugiharra). Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa. Antolatzailea: Zazpiki Kultur Elkartea. Lekuederreko karpan.

13:00 Herri kirolak. Emakumeak trontzan. Kalegoen plazan. Antolatzailea: Sigma Probaleku Elkartea.

14:30 Elgoibarko baserrietaren anaiarteko bazkaria Lekuederreko karpan..

18:00 Kalejira: Mauxitxa txaranga, hanka-luzeak, ekilibristak... Kalegoen plazaatik hasita.

23:00 Nagusien danborrada. Kalegoen plazan.

1:00 Erromeria: Joxpa taldea. Sute-gixa gaztetxean.

5:00 Txokolatada, Sutegixan.

27, DOMEKA

9:00 Diana. Udal Txistulari Taldea.

10:00-14:30 Artisau azoka. Lekueder parkean.

11:00 Meza. Parrokiako abesbatzarekin. San Bartolome parrokiaren.

12:00 Haurren danborrada. Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin.

TRINITATE JAIK MENDARON

Maiatzak 25, 26, 27 eta 28

25, BARIXAKUA

19:30 Bizi Poza txarangaren kalejira, jaiari hasiera emateko.

26, ZAPATUA

17:00 Zuhaitza jasotzea eta kanpai jotzea.

27, DOMEKA

10:00 Mendaroko txistularien kalejira.

11:30 Meza Nagusia, Eliza Abesbatza eta Ameikutzen partaidetzarekin.

Ondoren, trikitilariak.

12:30 Herri Kirolak.

28, ASTELEHENA

11:00 Meza Santua, Trinidaden.

12:00 Ikastolako umeen bertso saioa.

Ondoren, Ion Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

14:30 Herri Bazkaria, Toki Alain.

20:30 Herri afaria Aizpen, Ion Ansorregi, Larrañaga eta bertsolariekin. Txartelak: Toki Alai, Aitz Beltz eta Txirristakan, 25 euroan.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekaritan edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Elgoibarren lana egiteko
KOMERTZIALA behar da

Interesa duzuenok
deitu **609 593 869** (Sergio)
telefono zenbakira.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-20:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

25 BARIXAKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez Barrenetxea
29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA	31 EGUENA	1 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Egunez Yudego	Egunez Garitaonandia	Egunez Barrenetxea	Egunez Etxeberria
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142	* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384	Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)



'Custodia compartida'

25 Barixakua, 21:30
 26 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)
 27 Domeka, 19:00
 28 Astelehena, 21:30

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

FUB Fernando Urizar Barandiaran
 R.P.S.: 32/17
 Medikuntza doktorea
 Psikiatrian espezialista
 Psikioterapia psikoanalitikoak
 Psikosomatika
 Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
 Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
 furizar1@yahoo.com
 615 715 404

ECO EIBAR 4D imagen prenatal
 R.P.S. 44340878y

688 800 800
 Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
 GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

 Terrio Etxeberria, 22
 Eibar
 Tel. 943 106 020
 Mug. 677 531 850

RPS 183/12
Uzuri
 optika audio
 Elgoibar
 Tel.: 943 740 359
 Deba
 Tel.: 943 192 192

RPS 271/12

ainhoa
 fisioterapia
 Jausoro plaza, 6 behe
 Elgoibar
 943 531 953
 669 565 745

aldaz
 hortz klinikak
 RPS233/13
Tel.: 943 366 377
 San Bartolome, 22
 20870 Elgoibar

fisio&mas
 Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea

 Trenbide kalea, 13
 943 740 191 / 667 933 628
 www.fisio-mas.com
 RPS 132/00

federópticos
ikus
 RPS 65/07
 San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku edero
 hortz klinika
 RPS 171/12
 Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre Enparantza, 5
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 530 053



1961

lagun talde honek Kalegoen plazan ateratakoa da Mertxe Ondarzak ekarri digun argazki hau. 1961eko martxoaren 4an elkartu eta atera zuten argazkia eta bertan agertzen diren gehienak gaur egun Elgoibartik kanpora bizi direnez, garai bateko kontuak gogorarazteko balioko diete hainbati. Plazan elkartu eta handik joaten ziren mezatara, zinemara edo han egiten zituzten umetan jolasak, eta helduagotan, berriketaldi luzeak izaten zituzten bertan. Beharbada orduko kontu batzuk gogoan izango dituzte oraindik lagun hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: Rakel Ondarza, Asun Galban, Mertxe Ondarza, Iruñe Zubigarai eta Mari Tere Etxaniz. **Behean:** Pili Linaje bere ahizpa txikiarekin.

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralarerako: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbataz: 11:00 - 13:00

Inoiz ere inoiz ez
Dena ordua hartzeko.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko, 49 - 1 Tel: 943 741 189



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Joxe Mari Isasti Zulaika

2018ko maiatzaren 17an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Balbi Vives Zabaleta

2017ko maiatzaren 22an hil zen.
Bere oroimenez I. urteurreneko meza
Trinitate basilizan ospatuko dugu, igandean,
maiatzaren 27an, 11:30ean.

***Gure maitasunaren sua
ez dadila sekula itzali.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Simon Iriondo Elorza

2017ko maiatzaren 27an hil zen, 77 urte zituela.
Bere oroimenez I. urteurreneko meza Trinitate basilizan ospatuko
dugu, igandean, maiatzaren 27an, 11:30ean.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



etxegain

BIZIGUNEA



Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

★
3 logelako
etxebizitzak
160.000 € -tik
hasita



elgoibar

3 ETA 4
LOGELAKO
21 ETXEBIZITZA

TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK
10 M²-TIK
GORAKOAK

EGONGELA
GUZTIAK 20 M² -TIK
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK
DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN

etxegain goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriaz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

etxegain en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



elkano group

GE grupo eibar
inmobiliario

943 31 66 11

E: comercial@grupoelbar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

630 24 83 83
689 66 08 01

OBRA FINANCIADA POR
bankoa | Grupo
Credit Agricole